



Laguntzeko
oztoporik ez



LANEAN GANORAZ ARITZEN DA

Nora joan, hara laguntzen diegu gida-txakurrok itsuei: nola bulegora hala hotel batera, lanera edo oporretara. Hoteletan ere badakigu moldatzen: lehendabizi, sartu eta, gure lagun itsuaren argibideei segituz, harrerara joango gara, berak egin beharreko gestioak egin ditzan. Ondoren, logelara abiatuko gara.

Lekurik onena

Guretzako hoteletako saloi, igogailu edo igarobideek ez daukate sekreturik. Ondo irakatsita gaude leku horietan moldatzen, eta ez daukagu inongo arazorik gure lagun itsua noranahi eramateko, inongo arriskurik gabe. Logelan, gure lagunak guretzako lekurik aproposena bilatzen du eta arnesa kentzen digu, lana bukatu dugu-eta. Hala, erosoago gaude, atsedean hartzen dugu lagunari konpainia eginez edo loa zainduz.



Benetan gara diskretuak

Oso kide diskretuak gara, zaude ziur. Gainera, hain garbi eta ondo zainduta, prestatuta eta hezita gaudenez, edonora goazela ere, beti jasotzen dugu gorespina eta bene-benetako laudorioa gure lanagatik. Baina ez da harritzekoa, oso-osoa ondo prestatzen baikaituzte ONCE Fundazioko GidaTxakurren eskolan, autonomia eta segurtasuna emateko gure lagun itsuari.

Bestalde, gurekin dabilzanek oso zorrotz hartzen dute gure zain-tza. Ez dute egun bat ere pasatzen gu garbitu gabe, eta sarri-sarri eramaten gaituzte al baitariengana.

Hortaz, lasai egon, ez gara nabarmen ibiliko zure establezimenduan, ondo hezita gaude, garbi-garbi gabiltza eta osasun-kontrol oro pasatuta daukagu.

Aurrez, eskerrik asko ONCE Fundazioaren Gida Txakurren eskolaren partetik. Laguntzeko oztoporik ez!



JATETXEA

Laguntzeko oztoporik ez



ONCE

FUNDACIÓN ONCE DEL PERRO GUÍA

BETI BERE ALDAMENEAN

Gida-txakurrak apartekoak gara. ONCE Fundazioaren Gida Txakurren eskolan jasotako prestakuntza eta heziketa ezin hobeak ditugu bereizgarri.

Askotan ikusiko gintuzuen lagun itsu bat leku publikoetan eramaten, ez bakarrik kalean, baita metro edo autobusean, antzoki eta zineetan, merkataritza-guneetan eta, jakina, baita kafetegi eta jatetxeetan ere.

Goazen lekura goazela, bikain jokatzeko dugu, badakigu jokabide zuzena izaten, batez ere, jatetxeetan, usain goxo-goxoak hartzen baditu ere; gu ezagutu gabe bestela uste baduzu ere, jasotako prestakuntzagatik gai baikara usaina gozatu hutsean geratzeko. Gainera, gure lagunek ematen diguten elikadura primerakoa da, erabat gustura geratzen gara janariaz.



Gure hezkuntza bikaina

Jatetxe batera joatean, gure laguna dagokion lekuan jarri bezain laster, bere aulkiaren ondoan edo mahai azpian kokatzen gaitu hark, enbarazurik egin ez dezagun. Otorduan, gu alde batera eta bestera begira egoten gara, edo lo-kuluxka egiten, bere alboan beti. Jaten amaitzen duenean, imintziorik txikiena ere egiten duenerako, prest gaude haren aginduak entzun eta berak esandako lekura eramateko.

Askotan, inguruko mahaietakoak harrিতuta geratzen dira, ordu arte ez direlako konturatu gu han ginenik ere, halako finak gara-eta. Izan ere, gure lagunak oso zorrotzak eta eraman handikoak dira gure hezkuntza eta eguneroko garbitasuna zorrotz-zorrotz betetzeko; gainera, al baitarien kontrolak ere aldian-aldian betetzen dituzte.



la denek ulertzen dute gure lana oso garrantzitsua dela, oso serioa, hainbeste ezen legeak berak ere babesten baitu. Badago lege bat eskubidea ematen diguna gure lagun itsuari edozein tokitara, edonora ere, laguntzeko. Horri esker eman diezaiokegu autonomia gure lagunari.

**Aurrez, eskerrik asko
ONCE Fundazioaren
Gida Txakurren
eskolaren partetik.**

**Laguntzeko
oztoporik ez!**



ONCE

FUNDACIÓN ONCE DEL PERRO GUÍA

Nire Eskola ezagutu nahi baduzu: www.once.es/perrosguia

